

2014ko EKAINAREN 23an BURUTU KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua herriko etxean bildu da, Vincent BRUren zuzendaritzapean, 2014ko ekainaren 23an, astelehenarekin, 20:00etan.

Bertan ziren: Vincent Bru Jauna, Auzapeza, Bernadette Jougleux Anderea, Christian Devèze Jauna, Eliane Noblia Anderea, Frédéric Bardin Jauna, Pascale Lespade Anderea, Didier Irastorza Jauna, Eliane Aizpuru Anderea, Henri Saint-Jean Jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq Anderea, Vincent Goytino Jauna, Patrice Dor Jauna, Yolande Huguenard Anderea, Jean-Jacques Lassus Jauna, Jean-Noël Magis Jauna, Corinne Othatcegy Anderea, Maryannick Hirigoyen Anderea, Roger Barbier Jauna, Marie-Carmen Gonzalez Anderea, Pascal Bourguet Jauna, Véronique Larronde Anderea, Camille Jenvrin Jauna, Argitxu Hiriart-Urruty Anderea, Philippe Bacardatz Jauna, Nathalie Aïçaguerre Anderea, Pantxo Michelena Jauna, herriko kontseilariak.

Barkatuak: Christiane Despériès, Argitxu Hirigoyen Andereak, Peio Etchelecu Jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordeak: Ch. Despériès Andereak V. Larronde Andereari, A. Hirigoyen Andereak A.M. Pontacq Andereari, P. Etchelecu Jaunak Auzapez Jaunari.

Saioa ireki aitzin, Auzapez Jaunak, 61 urte zituen Nicolas Le Barsen aitaren heriotza jakinarazten dio herriko kontseiluari. Ehorzketak hurbilekoen artean ospatuak izanen dira, Paris eskualdean, ekainaren 26an, ostegunarekin. Haren izenean eta Herriko kontseiluaren izenean, Auzapez Jaunak, haien adiskidetasun eta atxikimendua zuzentzen dituzte, Nicolasantzat hain zailak diren garai hauetan.

1 – Saioko idazkariaren izendatzea.

Aho batez bertan ziren kideek, Patrice Dor Jauna saioko idazkari izendatu dute.

2 –2014ko apirilaren 28 eta maiatzaren 12ko saioretako bilkura agirien onartzea.

Auzapez Jaunak seinalatzen du ez duela oharririk eskuratu azken bi bilkura agiri hauetaz eta bozkarazten ditu.

- 2014ko apirilaren 28ko B.A.: aho batez onartua.
- 2014ko maiatzaren 12ko B.A.: A. Hiriart-Urruty Andereak oharrarazten du, Kontseiluak deus jakin gabe, Lassus et Jenvrin bi herriko kontseilari Jaunei onartu ordezkaritza gehigarriei buruzko oharra ez dela aipatua izan.

Auzapez Jaunak zehazten du ordezkaritza hauek Auzapezak dituela onartzen eta ez Herriko kontseiluak. Egia da bi ordezkaritza gehiago onartuak izan direla: Jenvrin Jauna segurtasun batzordeetarako izendatua da, eta Lassus Jauna komunikaziorako.

Herriko kontseiluak, 2014ko maiatzaren 12ko saioko bilkura agiria onartzen du, A. Hiriart-Urruty Andereak ekarri oharrarekin.

3 – Energia erosketa: manatze elkarte batean sartu.

Goytino Jaunak Herriko kontseiluari jakinarazten dio bilkura bat burutu dela Pirinio Atlantiko departamenduko energia sindikatuak (SDEPA/PADES) eskaturik, energia eroste liberalizazioari buruz, gasa bereziki.

Orain arte, herriaren hornitzailea GRDF da. Gasaren erosketa 2015eko urtarrilaren 1etik goiti liberalizaturik izanki, PADES-ek proposatzen du Pirinio Atlantikoetako eta eskualde osoko herrien elkarte batean sartzea. Bost sindikatuk proposatzen dute biltzea gasaren eros prezioak negoziatzeko gisan.

Goytino Jaunak zehazten du negoziaketak ez duela herria behartzen, proposatu prezioa ez bada interesgarria, herri bakoitza atera baitaiteke eta berak hautatu energia ekoizlearekin negoziatu dezake.

Lehen aldi batean, atxikimenduak gasa hornidura hunki dezake, eta bigarren aldi batean elektrizitatearena.

Gaur egun, manatze elkartearen gasaren hornidurarako bakarrik sartzea proposatua da.

Devèze Jaunak oharrarazten du herriak ez diola PADESari utzi, eta galdegiten du zoin diren honek dituen baliabideak prezio hobek lortzeko.

Auzapez Jaunak zehazten du eskumen hau gehitua izan dela, eta ez zela hastapenean pentsatua herriek haien energia prezioak negoziatu beharra.

Elkarte horretan sartzeak lukeen kostuari buruzko galderari erantzuteko, zerbitzuetako zuzendari orokorrak adierazten du herriak 200 € ordaindu beharko lukeela urtean elkarte horren ibilmolde xahutzetan parte hartzeko.

Bacardatz Jaunak galdegiten du zoin irizpideak aintzat hartuak izanen diren hornitzailea hautatzeko, operadoreak desberdinak izanki energia hornidurari dagokionez. Pixka bat karioagoa baina kalitate hobea duen hornitzaile bati lehentasuna emanen ote zaio? Zenbat urteko engaiatzen da herria?

Goytino Jaunak erantzuten du kontsulta bat abian ezarria izanen dela eta, honen emaitzaren ondotik, herriak hautatzen ahalko duela elkartearen sartuko den ala ez.

Devèze Jaunak dio interesgarria dela herriak autonomia atxik ahal dezan.

Auzapez Jaunak zehazten du PADES, herrien interesak defenditzea xede duen departamenduko energia sindikatu bat dela.

Bacardatz Jaunak, beste herri batzuetan prezioen emendatze bat ekarri duten elkarte batzuen adibidea ematen du.

Auzapez Jaunak proposatzen du esperientzia entseatzeko.

Michelena Jaunak galdegiten du bigarren bozka bat izanen denez.

Auzapez Jaunak baietz erantzuten du.

Auzapez Jaunak, energia erosteko manatze elkarte batean sartzea bozkatzea proposatzen du.

Herriko Kontseiluak sartzearen alde bozkatzen du. Abstenitzen dira: A. Hiriart-Urruty Anderea, Ph. Bacardatz Jauna, N. Aiçaguerre Anderea eta P. Michelena Jauna.

4 –Lacosta Consortsekin lur eremu trukatzea.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio Pierre Lacosta Jaunaren lur jabegoa eta herriko etxearen arteko mugak ez direla errespetatuak. Bereziki Vacanciel uda herrixkaren luzera, gune horretan burutu igerilekuaren hego angelua Lacosta Jaunaren jabegoaren muga gainditzen du. 2010eko abenduaren 20ko deliberamenduaren bitartez, Herriko Kontseiluak egoera hau erregulatu du bi zatien arteko lur eremu trukatze bat ordainsaririk gabe onartuz. Txostena, de Rezola Jaunaren bulegora helarazia izan zaio 2010eko abenduaren 29an, dagokion notario akta egina izan dadin. Kadastre birmoldaketa bat egina izanki agiria idatzia izan aitzin, goldekatze idazki berri bat burutu behar izan da lursailen zenbaki berriekin.

Horretarako, Herriko kontseilua trukatze honi burtuz berriz bozkatzera gomitatua da, zenbakitze berri hau aintzat hartuz. Herriak, Lacosta Consortsi 116 m²ko azalera duen AE 39 lursaila uzten dio eta Lacosta Consortsek 106 m²ko edukiera duen AE 37 lursaila uzten dio. Trukatze hau ordainsaririk gabe gauzatuko da.

Ph. Bacardatz Jaunak galdegiten du nundik sartuko den utzi lursailera.

Auzapez Jaunak erantzuten dio Arnaga aparkalekutik sartuko dela, Lacosta Consortsek fresak bere gain hartuz.

Ph. Bacardatz Jaunak galdegiten du proiekturik badenez lur eremu horretan.

Auzapez Jaunak adierazten du Lacosta Consortsek bi edo hiru apartamenduko etxe bat eraikitzeko xedea dutela.

Auzapez Jaunak Herriko kontseiluari galdegiten dio erabaki bat hartzea herria eta Lacosta Consortsen arteko lur eremu horri buruz.

Aho batez onartua.

5 – Eskolako lokalak erabili eskolako denboratik kanpo: hitzarmena.

Auzapez Jaunak bere kideei jakinarazten die aterpetzerik gabeko aisialdien harrerak (ALSH/AGAZ) Errobi kolegioko jantegia urte batez erabili duela. Joan den urtean bezala, hitzarmen bat izenpetu behar da departamendua, herria, Errobi kolegioa eta CCAS/LSHZaren artean. Horri esker, uda denboran AGAZan ibiltzen diren gazteek Errobi kolegioko jantegian bazkaltzen ahal dira.

Auzapez Jaunak Herriko kontseiluari delako hitzarmena izenpetzeko baimentzea galdegiten dio.

Aho batez onartua.

6 –Hezkuntzaz kanpoko jarduera denborak: partaidetza hitzarmena.

E. Noblia Anderea, axuanta ordezkoak seinalatzen du eskola erritmoen erreformaren karietara, herriak hezkuntzaz kanpoko jarduera denborak (TAP/HJD) plantan ezartzen dituela, eta hauen obratzea, Laurence Desponsek zuzentzen duen AGAZarekin lankidetzan TAP/HJD hauen koordinatze eta kudeaketa misioen burutzea segurtatzen duen UFCVri uzten dio. Andere hau, animatzaileak eta esku hartzaileak atzemateaz arduratzen da, bai eta eskoletan lokalen esku uztea gainbegiratzen du.

E. Noblia Andereak, Auzapeza UFCVrekin partaidetza hitzarmena izenpetzen baimentzera gomitatzen du Herriko kontseilua.

P. Michelena Jaunak oharrarazten du akats bat ba dela hitzarmenaren 3. orrian. Idatzia da « 3 jours de la semaine pour les primaires de l'école du haut Cambo ». « Primaire » hitzaren ordeztze « élémentaire » hitza idatzi behar da, « Primaire » hitza, leku berean bilduak diren ama eskola lehen mailako eskolaren adierazteko erabilia baita. Herriko etxeak erabaki du TAP/HJDen antolaketa AGAZi uztea. Ez da nehun ere errana, eskainiak zaizkion misioak adierazten duen kargu txosten bat ba denik. Ongi litzateke aitzinetik antolatzea ezagunak ez diren jardueri begira. Oroitarazi nahi du bi amaeskola eta lehen mailak eskola elebidunak direla, eta normala litzateke TAP/HJDen jardueretan, frantsesez bezala jarduera batzuk euskaraz proposatuak izan daitezen. Kargu txostenean aipatu beharko litzateke, jarduerak euskaraz ukan nahi dituzten familiek edo ikasleek horretara hel daitezen. Bestalde, gurasoak ez dira batere aipatzen. Hauek ere inplikatu behar dira erreforman, eta informatzeaz gain, egoki litzateke egitasmoan parte harraraztea.

Auzapez Jaunak zehazten du hitzarmen honen helburua, UFCVek kudeatzen duenez AGAZ, jarduera berri hau UFCVri eskaintzea. Ez da hezkuntza egitasmoa. Jadanik zombait aldiz bildu den gidaritza batzordeari dagokio programa zehaztea. Herriak ez dio UFCVri konfiantza egiten baina bai Laurence Desponsi, jarduerak herriarekin eta CCAS/LSHZekin partaidetzan antolatzeko.

Euskarari dagokionez, duela guti Arnagan ikusi Akademiako Ikuskaria arrunt ados da TAP/HJDetan jarduera denbora batzuk euskaraz antolatzeko. Zailtasuna, animatzaileak atzematean datza.

Haurren onetan, pentsatua izan zen bi aldiz oren 1 eta 30 egitea hiru aldiz oren 1en ordeztze. Horrek interesgarriagoa iduri zuen, eta horri esker jarduera karioagoak proposatzen ahal ziren. Errazagoa zitzaien ere Laurence Desponsi animatzaileak atzematea.

Auzapez Jaunak, TAP/HJDak astean egun erdi batean biltzeko esperantza ematen zuen 2014ko maiatzaren 7ko dekretu berriaren argitaratzea aipatzen du. Hau abantail bat zen AGAZeko zuzendariarentzat, animatzaile kalifikatuak eta elebidunak atzemateko, proposamen interesgarriagoak, berritzaileak, desberdinak ukaiteko. Baina hau ez da egiten ahalko, Akademiako Errektoreak, departamenduan, sei oreneko egun salbuesgarrien kopurua 1era mugatzea erabaki baitu. Bestalde, TAP/HJDak bi aldiz oren 1 eta 30ez antolatzea ez da egingarria, irakasle batzuen zati denborako lanaldiarengatik. Zoritxarrez, hiru aldiz oren 1eko antolaketara itzuli behar izan da, hauren onerako, eta ezin da beraz jarduerarik antolatu ezker paretan. Auzapez Jaunak aipatzen du ere biziki zaila dela arduradunak aurkitzea. CAF/FLKk %80 diplomadun izatera behartzen du.

Ttipienentzat, euskara dakien ATSEM bat eskatua izanen da, eta herriak haurtzaindegi bati buruz joko du gehiago. TAP/HJDak ez dira batere ttipienentzat egokiak.

Gazteen Gerorako Ordezkaritza deitua izanen da pertsona diplomadunak kontratatuzeko (BAFA, lehen hautzaroko CAP), gazteak eta ikasleak libre ez izanki aste barnean.

Auzapez Jaunak, erreforma hau praktikan burutzeko zailatsuna azpimarratzen du.

A. Hiriart-Urruty Andereak seinalatzen du Herri elkargoko euskara batzordean, euskarazko esku hartzaileen menturazko diruztatzea aipatua izan zela. 30 esku hartzailearen zerrenda bat eman izan zaie. Jarduera biziki interesgarria litzateke.

Auzapez Jaunak seinalatzen du Herri elkargoko bulegoaren bilkura bat laster burutuko dela. Kanboko ikastolako ordezkariari harrera egin die. Herri elkargoko euskara teknikariak esku har dezake. Jean-Pierre Harriet Jauna, batzordeko lehendakari ordeak, gai honi buruz lan egiten du.

Herri elkargoko lehendakariak, baliabideen zati bat herriei banatu nahi die. Proposatu du 50 € ematea ikasle bakoitz eta urtean publikoko eta ikastoletako haurrei, eta hala beharrez eskola pribatuetakoa haurrentzat ere. Herri elkargoko zerbitzuak, haur kopurua biltzen ari dira herri bakoitzean.

A. Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du euskara batzordea partzuer izanen denez.

Auzapez Jaunak ezetz erantzuten dio, egitasmoa atxikia baldin bada.

P. Michelena Jaunak seinalatzen du haur bakoitzarentzat laguntzak orotara 154 €koak daitezkeela urtean.

E. Noblia Andereak dio PEDT bat apailatua izan dela.

P. Dor Jaunak pentsatzen du PEDT hitzarmenean aipatua izaten ahal zela. Haiak sartuz gero, ikastolei eta eskola pribatuei zabaldu kargu txosten bat da.

Auzapez Jaunak adierazten du PEDT ez zaiola hitzarmen honi erantsia.

A. Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du herriak baserri guneko elkartasun hornidura eskuratzen duenez. Kasu horretan, herriak 40 € eskuratuko lituzke haurka.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak erantzuten du gai horri buruzko xehetasunik ez duela oraindik ukan. Galdera Kudeaketa zentroari egin izan zaio. Zehazten du PEDT-k ama eskolako hirugarren urtea eta lehen maila baizik ez dituela hunkituko.

A. Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zertan den Ikastolak galdegin laguntza.

Auzapez Jaunak erantzuten dio Herri elkargoak urtean 50 € haurka bere gain hartzen baldin badu, herriak ez duela deus gehiago emanen. Kreditu hau ez da metatzen, araua da: Herri elkargoak esku hartzen badu, herriek ez dute bigarren laguntza bat ematen.

A. Hiriart-Urruty Andereak oharrarazten du diru kopuru hori hutsaren parekoa dela, eta bere burua galdezkutzen duela jakiteko zenbaiteko kopurua daitekeen baserri guneko elkartasun hornidura emana bazen.

Auzapez Jaunak adierazten dio eskola pribatuekin aitzinetik pentsatu behar zela. Herriko arduradun gisa, epe ertain eta luzea begiratzen ditu. Eskola pribatu girixtinoak erreforma aplikatzen badu, herriak parte hartuko du beste eskolentzat bezala. Diru mailako ondorioa ikusi behar da eskola guziak sartzen balire.

P. Lespade Andereak galdegiten du zenbatekoa den esku hartzaile bakoitzak galdegin kopurua.

A. Hiriart-Urruty Andereak erantzuten du ez dela ezaguna. Dokumentua Herri elkargoko eta Euskara batzordeko lehendakariari emana izan zaio.

Ch. Devèze Jaunak, erreforma honen aplikapenari lotua zaion finantza alderdia azpimarratzen du, bai eta anitzez azkarragoa izan den eragina animatzaileak denboraldi laburragoetarako hartzen badira. Arazoa beharko da zinez aztertu, eta esku hartzaileen zinezko ondorioak lortu.

A. Hirigoyen gelan sartzen da eta R. Barbier Jauna gelatik ateratzen da, ahalordea J.J. Lassus Jaunari emanez.

Eztabaida bukatu, Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari erabakitzea galdegiten dio.

Hitzarmena onartua da. Ch. Devèze Jauna abstenitzen da, zehaztua ez den finantza alderdiari dagokionez.

7 – Elkarteei diru laguntzak.

Auzapez Jaunak oroitarazten du elkarteen diru laguntzak jadanik bozkatuak izan direla 2014ko hastapeneko buxetaren kariatara, baina bi eskaera berriz aztertzea proposatzen du.

a) Behereko Kanboko eskolako hezkuntza Elkartea.

E. Noblia Andereak seinalatzen du 600 €ko diru laguntza bat emana izan zaiola elkarte horri. Alta Behereko Kanboko eskolak urte bukaerako bidai bat antolatzen du bi urte guziz, aurreko otsailan antolatua izan da. Horregatik zaio Herriko kontseiluari 400 €ko diru laguntza gehigarri bat bozkatzeko galdegin urte honetarako, 2012an gertatu bezala. Aho batez onartua.

b) Emaizta elkartea.

Auzapez Jaunak oroitarazten du eskaera hau ez zela aztertua izan euskara hutsez idatzia baitzen. Elkarteak idazkiak bi hizkuntzetan helarazi behar zituen, hori egin da. P. Lespade Andereak hitza hartu ondoren errateko elkarte horrek ez zuela eskaerarik egin azken bi urteetan, proposatua da 600 €ko diru laguntza bat eskaintzea Emaizta elkarteari, hastapenean aurreikusitako ziren 500 € ordez. Aho batez onartua.

8 – Arnaga: adigailu alokatze prezioak.

2014ko hastapeneko buxetaren kariatara, Herriko kontseiluak erabaki du adigailuak erostea Arnaga museorako, tresna hau alokatzen duten pertsonak giden komentarioak entzuteko gisan.

Auzapez Jaunak tresna horien alokatze prezio bat finkatzea proposatzen du, orohar:

- helduentzat: 2 €
- gazteentzat (18 urte betetik gabekoentzat): 1 €.

Ph. Bacardatz Jaunak galdegiten du alokatze hori ez daitekeenez urririk izan kanboarrentzat.

Auzapez Jaunak erantzuten dio museoa eta baratzeen bisita jadanik urririk dela kanboarrentzat, eta Arnagan gertatzen diren jarduera guziak ordainpekoak direla (antzerki festibala...), beste hirietan bezala.

A. Hiriart-Urruty Andereak zehazten du Baionan, igandean urririk dela.

H. Saint Jean jaunak seinalatzen du xahutzea amortizatu behar dela adigailu horien erosteko.

N. Aïçaguerre Andereak oharrarazten du tresna horiek hauskorrak direla, eta arreta berezi bat eskatzen dutela.

F. Bardin Jaunak erantzuten dio erregulariki mantenduak baldin badira, biziki makur guti badela.

Auzapez Jaunak proposatu adigailuen alokatze prezioak aho batez onartuak dira.

9 – Langileak: batzorde teknikoa.

Auzapez Jaunak oroitarazten du joan den apirilaren 28ko saioaren kariatara, Herriko kontseiluak erabaki duela herriko eta CCAS/LSHZeko langileentzat batzorde tekniko bateratu bat sortzea.

Herriko kontseiluari galdegina zaio:

- batzorde tekniko horretarako langileen ordezkarien kopurua finkatzea,
- bi multzoen arteko parekotasuna atxikitzea,
- ordezkarien multzoaren iritzia hartua izanen den ala ez.

Auzapez Jaunak zehazten du langileen ordezkari tituludunen kopurua 3 eta 5en artekoa izan daitekeela, eta proposatzen du, geruza demografiko berdinetako herrietan egiten den gisara, 3tan finkatzea, tituludun bakoitzak ordezeko bat unkanetz, eta herriko ordezkarien kopurua langile tituludunen heinekoa izatea (tituludun bakoitzak ordezeko bat ere ukanik).

Desiragarria litzateke hiru ordezkarietatik, bi herrikoak izan daitezen eta bat CCAS/LSHZekoa.

Auzapez Jaunak seinalatzen du proposamen horiek, herriko etxean, bertara hurbildu ziren hiru sindikatuekin, CGT, CFDT eta FO, egin bilkuran aipatutakoaren arabekoak direla. Hauteskundeak heldu den abenduaren 4ean gertatuko dira langileentzat, eta bilkura bat pentsatua da irailan, hauteskunde horien modalitateak zehazteko gisan.

P. Michelena Jaunak galdegiten du herriko eta CCAS/LSHZeko langileek hautatzen dituztenez hautagaiak.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak erantzuten dio sindikatuek dituztela zerrendak pausatzen. Bestalde, ez da beharrezkoa langileak sindikatuak izan daitezen horietan parte hartzeko.

H. Saint Jean Jaunak berresten ditu zerbitzuetako zuzendari orokorraren erranak.

Eztabaidatu ondoren, Herriko kontseiluak, aho batez,

- erabakitzen du langileen ordezkari tituludunen kopurua 3koa izanen dela, tituludun bakoitzak oredezkua bat ukanik,
- erabakitzen du parekotasuna kopuru mailan, herriko ordezkarien kopurua langile tituludunen ordezkarien heinekoa finkatuz (tituludun bakoitzak ordezkua bat ukanik),
- erabakitzen du batzorde teknikoak herriko eta CCAS/LSHZeko langileen iritzia hartzea.

10 – Oporleku Berdea: ordezkari baten izendatzea.

Auzapez Jaunak oroitarazten du kolektibitatea Frantziako Oporleku Berdeen Federazioan sartu dela, horrek abantaila bat ekartzen duelarik Turismo Ministerioari aurkeztu herri turistiko sailkapenerako txostenean.

Herriko ordezkariak erakunde desberdinetarako izendatzearen kari, ahantzia izan da ordezkari bat izendatzea Oporleku Berdeen Federazioko biltzar erabakitzaileetarako.

Auzapez Jaunak, turismoaz arduratzen den Didier Irastorza axuantaren hautagaitza proposatzen du eta galdegiten du beste hautagairik badenez.

Nathalie Aïçaguerre Andereak bere hautagaitza aurkezten du.

Auzapez Jaunak galdegiten du kontseilariak isilpean edo eskua altxatuz bozkatu nahi dutenez.

Aho batez, Herriko kontseiluak eskua altxatuz bozkatzea erabaki du.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Nathalie Aïçaguerrek 4 boz lortzen ditu.

Didier Irastorzak 25 boz lortzen ditu (hauetarik 3 ahalorde).

Didier Irastorza herriko ordezkari izendatua da Oporleku Berdeen Federazioko biltzar erabakitzaileetarako.

Kontra bozkatu dute: A. Hiriart-Urruty Andereak, Ph. Bacardatz Jaunak, N. Aïçaguerre Andereak, P. Michelena Jaunak.

11 – Baliogabetasun onarpena.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak Herriko kontseiluari jakinarazten dio, 2014ko martxoaren 14ko gutun baten bitartez, Martin diruzain Andereak, adierazten duela Baionako Auzi Zibilen Auzitegiak, Montero Anderearen legezko likidaziorik gabeko berrezartze pertsonalari betearazte indarra ematen dion 2014/02/18ko ordenantza bat agertu duela. Auzi zibileko epaileak, betearaztea erabaki duen legezko likidaziorik gabeko berrezartze pertsonalak, zordunaren zor ez profesional guzien ezabatzea eragiten du.

Ondorioz, ordaindurik gabeko 2013ko alokairu batzuei dagokien 1 003,79 € dirutza baliogabetasunean aurkeztua izan behar da.

Aho batez onartua.

12 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Auzapez Jaunak oroitarazten du, eskainiak izan zaizkion ordezkartzaren baitan, hiriko lehentasunez erosteko eskubideari dagozkionez ezezko erabakiez kontu eman behar duela, beste kasuetan, Herriko kontseiluak du erabakitzen.

2014ko apirilaren 4tik ekainaren 16erako garairako, ezezko erabakiak, lursail bat, sei etxe eta hiru apartamenduei dagozkie.

13 – Orotariko gaiak.

Auzapez Jaunak Herriko kontseilua gomitatzen du Besta Berrian parte hartzera, heldu den ekainaren 29an, igandearekin.

Auzapez Jaunak Herriko kontseilua ere gomitatzen du « Ospetsuen etxea » plakaren ezartzera eta frantses moldeko lore baratzearen estrenara, 2014ko uztailaren 7an, astelehenarekin, Pirinio Atlantikoetako Prefeta eta Arnaud Littardi Jauna, Akitaniako eskualdeko kultur gaietako zuzendariarekin batera.

P. Michelena Jaunak, Besta Berriari dagokionez, pentsatzen du Herriko kontseiluak, biztanleei begira, ez duela gurutzaren gibelean ibili behar.

Auzapez Jaunak erantzuten dio tradizio bat dela Besta Berrietan, eta zehazten du gomita simple bat dela.

A. Hiriart-Urruty Andereak seinalatzen du hori hemen egiten dela, baina beste leku batzuetan, Herriko kontseilua ez dela sekula gurutzaren gibelean ibiltzen.

P. Michelena Jaunak Jesus Echevarria eta Pablo Tillac, lehena euskalduna eta bigarrenak bere bizia euskal arima irudikatzen iragan duena, bi artista hauen inguruko kultur gunearen estrenaldia aipatzen du, eta kultur gunearen aitzinean ezarri afitxa, bai eta gomita ere, frantses hutsez idatziak direla. Horrek min egin dio bi artista hauen errespetuz, deitoratzen du afitxa eta gomita elebidunak ez izatea. Oharrarazten du gomitak beti elebarkarreak direla, mediatekakoak beti elebidunak direlarik. Testuak laburrak dira eta gibelean euskaraz inprima daitezkeela.

Auzapez Jaunak azaltzen du arazo tekniko batzuen gatik eta Nicolas Le Bars hor ez izanki, gomita hitza urgentzian eginga izan dela eta denbora eskastu zaiela horren itzultzeko. Assantza etxearen aitzineko afixatze taulari dagokionez, hau behin-behinekoa da, behin betikoa elebiduna izanen da.

P. Michelena Jaunak galdegiten du seinaletikak automatikoki bi hizkuntzetan idatziak izan daitezen.

N. Aïçaguerre Andereak oharrarazten du musikaren festarako afitxak frantses hutsez zirela.

Ph. Bacardatz jaunak seinalatzen du, Txakurrak sindikatuaren azken bilkuraren kariatara, prezioen emendatze bat erabakia izan dela, eta herriko etxearen jarrera ezagutu nahi du.

Auzapez Jaunak erantzuten dio R. Barbier, sindikatu horretako herriko ordezkari Jaunak jakinarazi berri diola. Biztanle bakoitzeko urtesaria, 1,20 €tik 1,80 €ra pasa daiteke. Problematika nagusia da Biarritz hiriak ez duela gehiago bere urtesaria ordaintzen. Alta bada, orduan CABABeko lehendakaria zen Borotra Jaunak zituela herriak sindikatu horretan sartzera bultzatu.

Ph. Bacardatz jaunak adierazten du emendatze hau, 100 000 € kostatu lukeen araztegi baten eraikitzearengatik gertatu zela.

Auzapez Jaunak adierazten du R. Barbier Jaunari galdegin diola sindikatutik eskuratu duen gutuna pasaratzea. Biarritz hiriak sindikatuan ez gehiago egoteak eragin lituzke diru mailako zailtasunak.

A.M. Pontacq Andereak hitza hartzen du adierazteko Biarritz hiriak desberdintasun batzuen gatik bere parte hartzea ordaintzeari uko egin ziola, baina orain ordaintzen duela. Baiona hiriak du araztegia eraiki, baina ibilmoldeak kostu gehigarri bat eragiten dio xakur anitz biltzen dituen sindikatuari.

Auzapez Jaunak deitoratzen du Txakurrak xakurrak baizik ez dituela biltzen, hastapenean gutuak onartuak zirelarik. Sindikatu horretan sartuz, herriek ez zuten gehiago txakurtegirik sortzeko beharrik. Ez da biziki sobera horren aldekoa.

A. Hiriart-Urruty Andereak, bi oihan eremuren mantenuari dagokion igorri gutunaren erantzuna galdegiten dio Auzapez Jaunari.

Auzapez Jaunak adierazten du ez duela gutunik ikusi eta erantzun bat berantago eginen diola.

A. Hiriart-Urruty Andereak erraten du, Arditeia zahar etxea eta estudioaren arteko oihan eremua eta estadioaren beste aldean, kirol berritik hurbil den eremuaren mantenu eskas bati buruzkoa dela.

Auzapez Jaunak erantzuten du behar diren neurriak hartuko dituela egoera horri aterabide bat atzemateko.

A. Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du herriko etxeak baimena eman duenez « Carrefour market » supermerkatu ttipia irekitzeko igande goizetan.

Auzapez Jaunak adierazten du saltegi horretako zuzendariak kontsultatu duela bere iritzia galdegiteko. Eskaera hau gehiengoa duen taldeari aurkeztua izan zaio eta ez du iritzirik agertu nahi izan irekitze horri buruz. Kanbo hur hiria izanki, saltegiek urte osoan irekitzeko eskubidea dute, Herriko kontseiluaren baimenik gabe.

P. Lespade Andereak oharrarazten du joan den urtean, eskaerari ezetza emana izan zitzaiola.

Auzapez Jaunak zehazten du ur hirietan, saltegiek irekitzen ahal dutela.

A. Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du: « herriko etxeak ezin du kontra jarri? »

Ph. Bacardatz Jaunak galdegiten du: « noiz etorriko dira mikroak? »

Auzapez Jaunak adierazten du enpresa bat kontsultatua izan dela, eta gertatzen da muntadura guzia aldatu behar dela. 5 000 €ko aitzinkondu batagina izan da, eta zenbatekoa ikusirik, erabakia izan da konkurrentzian ezartzea eta beste aitzinkondu batzuk galdegitea.

H. St Jean Jaunak proposatzen du, anartean, eskuko mikro bat erabiltzea.

Auzapez Jaunak erantzuten dio ez dela beti alhan, eta ez da praktikoa.

P. Michelena Jaunak lau mikro bakarrik erostea proposatzen du, oposiziokoak baizik ez baitira mintzatzen.

N. Aïçaguerre Andereak seinatzen du gunean ikusi duela herriaren apartamendu bat alokatzeko zela, eta galdegiten du nun kokatua den.

Auzapez Jaunak erantzuten dio Behereko Kanboko eskolan kokatua den apartamendua zela, gaur egun horretan bizi den pertsonak, herriko soldataduna, familiako arazoengatik, hiru urteko geldialdi bat galdegin duelako. Lehentasuna Kanboko bikote gazte bati emanen zaio.

Ph. Bacardatz Jaunak seinatzen du entzun duela txokolategiaren mailan, kuristentzako F1, F2 motako apartamenduak eraikiak izanen zirela.

F. Bardin jaunak zehazten du proiektu bat pausatua izan dela, ez behin betikoa, hotel-bizitegi bat eraikitzeko. Eraikitzeko baimena helarazia izan da, eta frogagarri eta informazio gehigarriak eskatuak izan dira.

Ph. Bacardatz Jaunak galdetzen du turismoari bihurtu hotel-bizitegi baten beharra badenez, apartamendu tipiak baizik ez baitira aipatuak.

P. Lespade Andereak erantzuten dio pribatua dela.

F. Bardin Jaunak seinatzen du herriak lehentasunez erosten ahal zuela, baina zeren egiteko? Herriak bortxak ezartzen ahal ditu hirigintzari dagokionez, baina arauak errespetatuak baldin badira, herriak ezin du proiektu baten kontra jarri.

Ph. Bacardatz Jaunak galdegiten du nun izanen den sarbidea.

F. Bardin Jaunak erantzuten du sarbidea Bergerie karrikan egitea pentsatua dela.

Ch. Devèze Jaunak seinatzen du beste proiektu batzuk pausatuta izan direla, baina ez direla bururatuak izan.

Auzapez Jaunak oharrarazten du proiektu hori gauzatu, enpleguak sortuko direla.

Bilkura bururatu aitzin, Auzapez Jaunak bere kideak informatzen ditu Herriko kontseiluaren ondoko bilkura uztailaren 21ean egingen dela, eta ez dela bilkurarik izanen agorrilan.

Bilkurari bururapena 21:35etan ematen zaio.